



Hizkuntza-garapen ez-tipikoa haur elebidunengan: diagnosia eta eskuhartzea



Ira. 15 - Ira. 16 2023

Kod. 018-23

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2023

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Ira. 15 - Ira. 16 2023

Kokalekua

Lesakako Harriondoa Kultur Etxea

Hizkuntzak

Gaztelera Euskara

Balio akademikoa

20 ordu

Antolakuntza Batzordea



Azalpena

Uda Ikastaroa ekitaldi ireki eta zabala da, eta era askotako entzuleei dago zuzenduta. Irakasleak, orientatzaileak, logopedak, psikologoak, medikuak, terapeutak, ikasleak eta familiak izan daitezke ikastaroaren hartzaileak. Ikastaroa bilgunea da, gainera, haurren hizkuntza garapenarekin eta hizkuntza nahasmenduekin jakinmina dutenentzat, maila pertsonalean zein profesionalean, nahasmenduak eragindako arazoei erantzuten esperientzia duten pertsonen artean, dela terapiaren esparruan, hezkuntzarenean edo familia mailan. Ikastaroaren helburua hizkuntza-arazoen inguruko elkarrizketa eta hausnarketarako gunea sortzea da, ekimen eta ekintzak abiaraziko dituztenak hizkuntza-arazoak dituzten haurrei zailtasunei aurre egiten lagunduko dietenak.

Ikastaroa Nafarroako Lesakan egingo da, euskara erdara batekin (gaztelania edota frantsesa) ukipenean dagoen hiru lurralde euskaldun elebidunen erdigunean. Testuinguru honetan, hizlariak beren aurkezgaiak elebitasunera eta euskarara edo bestelako hizkuntza gutxitu batekiko elebitasunera hurbiltzea eskatzen zaie, izan ere, horrelako gaiak aintzat hartzen dituen ikerketa ez baita ugariegia. Horrexek egiten ditu uda ikastaro hau bezalako ekitaldiak garrantzizko, izan ere, eskarmentudun profesionalen esperientziak izatea, jasotzea eta partekatzea bultzatzen baitituzte, hizkuntza arazoak dituzten haurren eta familien egoera eraman errazagoa egiten lagunduko dutenak, zalantzarik gabe.

Helburuak

Hizkuntza modu ohikoan eta ez-ohikoan garatzen ari duten haur elebakar eta elebidunekin diharduten ikertzaile eta profesionalak pilatutako ezagutza Ikastaroko partehartzailei ezagutaraztea, bai ikerketaren zein praktika kliniko eta hezkuntza esperientzien ondorioz lortutakoa.

Hizkuntza nahasmenduen eta hizkuntza-garapenaren inguruan burututako praktika kliniko eta hezkuntzakoari buruzko elkarrizketa, eztabaida eta hausnarketa bultzatzea, bai aurkezpen teoriko-praktikoen bidez, eta baita mahai-inguru eta adituari zuzendutako galdera-saioen bidez.

Hizkuntza nahasmenduen eraginak areagotu ez daitezen, hizkuntza nahasmenduak antzeman, ebaluatu eta haien balizko ondorio txarrak urritzen lagundu dezaketen esku-hartze eta ekimenak bultzatzea.

Hizkuntza-garapeneko nahasmenduaren inguruko ikasketan eta lanketan familien parte-hartzea bultzatzea.

Elebitasunak hizkuntzaren bereganatze prozesuan hainbat mailatan duen eragina hobeto ulertzea.

Lankidetzak



OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD





HEZKUNTZA SAILA
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Programa

2023-09-15

15:30 - 16:00	Erregistroa / Registro
16:00 - 16:10	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Belen Compains Beaumont Osasunbidea - Pediatra Maria José Ezeizabarrena Seguro UPV/EHU-ELEBILAB - Irakasle eta Ikertzailea / Profesora e Investigadora
16:10 - 17:00	“Trastorno del desarrollo del lenguaje y bilingüismo: ¿ventaja bilingüe o tormenta perfecta? / Elebitasuna eta Hizkuntza-garapeneko nahasmendua: elebiduntasuna, abantaila ala ekaitz perfektua?” Llorenç Andreu Andreu Barrachina Universitat Oberta de Catalunya - Investigador / Ikertzailea
17:00 - 17:35	“Del TEL al TDL. Impacto de la nueva conceptualización en la práctica / TEL edo Hizkuntzaren Nahasmendu Espezifikotik TDL edo Hizkuntza-garapeneko nahasmendura. Kontzeptualizazio berriak praktikan duen eragina” Nadia Ahufinger Sanclemente Universitat Oberta de Catalunya - Investigadora
17:35 - 18:00	Atsedena
18:00 - 18:30	“Perfiles comunicativos en TEA: De los gestos al lenguaje / Profil komunikatiboak TEA edo Autismoaren espektroko nahasmenduan: keinuetatik hizkuntzara” Sara Ramos Cabo Lindy Lab (UPV/EHU) - Investigadora / Ikertzailea
18:30 - 19:00	“Autismoaren espektroko nahasmenduaren ebaluaketa eta ikerketa UPV/EHU: autismodunak hobeto ezagutzeko tresnak / Evaluación e investigación sobre TEA en la UPV/EHU: herramientas para conocer mejor a las personas autistas” Ekaine Rodríguez Armendariz Lindy Lab (UPV/EHU) - Lan Terapeuta eta Ikertzailea Zuriñe Abalos Lindy Lab (UPV/EHU) - Ikertzailea / Investigadora
19:00 - 20:00	Mahai ingurua: “Preguntas al experto sobre cómo abordar los trastornos del desarrollo del lenguaje / Adituari galdezka: Nola heldu dakizkieke hizkuntza garapeneko nahasmenduei?” Belen Compains Beaumont Osasunbidea - Pediatra (Moderatzailea) Llorenç Andreu Andreu Barrachina Universitat Oberta de Catalunya - Investigador / Ikertzailea Nadia Ahufinger Sanclemente Universitat Oberta de Catalunya - Investigadora / Ikertzailea Sara Ramos Cabo Lindy Lab (UPV/EHU) - Investigadora / Ikertzailea

2023-09-16

09:00 - 09:45	“Trabajo en red en los trastornos de adquisición del lenguaje: una propuesta de atención primaria de salud. / Hizkuntza-garapeneko nahasmenduaren inguruko lana sarean: proposamen bat osasunbideko lehen arretarako” Belen Compains Beaumont Osasunbidea - Pediatra
---------------	--

09:45 - 10:35	“CREENAren ekarpena hezkuntza-behar bereziko Nafarroko ikasleen heziketan: beharren detekzioa, balorazioa eta esku-hartzea bi hezkuntza-eredutan / La aportación del CREENA a la educación de los escolares navarros con necesidades educativas específicas: detección, evaluación y respuesta a sus necesidades en dos modelos educativos” Iñaki Martínez Urmeneta CREENA - Zuzendaria / Director
10:35 - 11:05	“Hizkuntzako nahasmendua duten haur euskaldunen gramatika: hurbilketa bat / Aproximación a la gramática de los niños euskaldunes con trastorno del lenguaje” Ainhoa Leyaristi Oñederra UPV/EHU - ELEBILAB - Ikaslea Maria José Ezeizabarrena Seguro UPV/EHU - ELEBILAB - Irakasle-Ikertzailea / Profesora-investigadora
11:05 - 11:30	Atsedena
11:30 - 12:30	“Haur euskaldunekiko Eskuhartze logopedikoa / Intervención logopédica con niños y niñas euskaldunes” Ainara Lakuntza Mazkian Ubide Gabinete Psikopedagogikoa - Logopeda Cristina Mazkian Zufiaurre Ubide Gabinete Psikopedagogikoa - Logopeda
12:30 - 13:15	“Atención temprana en el niño con hipoacusia. Casos prácticos / Entzumen urritasuneko haurren arreta goiztiarra. Kasu batzuk” Patricia Piqueras Gonzalez CAT Pamplona - Logopeda
13:15 - 14:15	Mahai ingurua: “Trabajo en red : De la teoría a la práctica / Lana sarean: teoritik praktikara” Maria José Ezeizabarrena Seguro UPV/EHU - ELEBILAB - Irakasle-Ikertzailea / Profesora-investigadora (Moderatzailea) Belen Compains Beaumont Osasunbidea - Pediatra Iñaki Martínez Urmeneta CREENA - Director Ainara Lakuntza Mazkian Ubide Gabinete Psikopedagogikoa - Logopeda Patricia Piqueras Gonzalez CAT de Pamplona - Logopeda
14:15 - 14:30	Itxiera Belen Compains Beaumont Osasunbidea - Pediatra Maria José Ezeizabarrena Seguro UPV/EHU - ELEBILAB - Irakasle-Ikertzailea

Zuzendaritza



Belen Compains Beaumont

Osasunbidea

Nafarroako Unibertsitatean medikuntzan lizenziatua. Nafarroako Hospitalean pediatria espzializazioa. 1990 geroztik Lehen Mailako Arretako mediku bezala lan egiten dut, lehengo hirurak Iruñeko Udalaren mediku gisako lanarekin konpatibilizatuta. 1993 geroztik Lesakako Osasun Zentroko pediatria. Desagertutako Bortzirietako ELAIAko (Equipo Local de Atención a la Infancia y Adolescencia) bazkide sortzailea. Nafarroako Arreta Goiztiarraren Elkartearen sortzaile eta lehen Lehendakaria. Nafarroako pediatria elkartearen haur garapenaren taldekidea. Oraingo Haur Garapenaren eta ohiko Arreta Goiztiarraren NAUPeko irakasle laguntzailea. Ur terapia eta neurorehabilitazioari buruzko Lesakako ikastaroen zuzendaria. 2017.ko bi ikastaroetan hizlaria. Arreta goiztiarraren azken hiru kongresuetan gutxienez eta Nafarroako pediatira elkartean komunikazioak aurkeztu ditut, beti haur garapena eta Arrta Goiztiarrearekin lotuta. Une honetan hiru ikerketa proiektuetan parte hartzen ari naiz.



Maria José Ezeizabarrena Seguro

Letren Fakultatea - ELEBILAB (UPV/EHU)

Euskal Filologia Litzentziaduna (UPV/EHU) eta Hizkuntzalaritzan Doktore (U. Hamburg, Alemania). Irakasle eta ikertzaile Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak sailean eta ELEBILAB Ikertaldeko zuzendaria (UPV/EHU). Ikerketa gaiak: elebitasun goiztiarra; haurren keinuak, hiztegia, gramatika eta fonologia; hizkuntzaren erabilera hizkuntza-ukipen egoeratan eta baita hizkuntza-garapena hizkuntza-nahasmenduak dituzten haurrengan ere.

Irakasleak



Zuriñe Abalos

Zuriñe doktorego ikaslea da, UPV/EHU-ko Hizkuntzalaritza Programan matrikulatua, eta Eusko Jaurlaritzako beka baten laguntza dauka (Eusko Jaurlaritzaren Doktoratu Aurreko Beken Programa), AEN (Autismoaren Espektroko Nahasmena) eta HGN (Hizkuntza Garapenaren Nahasmena) populazioen diskurtso-egiturari buruzko tesia egiteko, Elena Castroviejok eta Begoña Vicentek zuzenduta.



Nadia Ahufinger Sanclemente

Nadia Ahufinger doktore da, Psikologia Klinikoa eta Osasun psikologian Universitat de Barcelonan (UB). GRECIL ikertaldeko kide da (Grupo de investigación en Cognición y Lenguaje). Bere ikerketa hizkuntza garapeneko nahasmenduetan kokatzen da (TDL/TEL) eta baita beste neurogarapeneko eta ikasketa nahasmenduetan ere. Ikerlerro nagusiak biztanlerian eragina izan dezaketen prozesu psikologiko oinarritzaren ezagutzaren inguruan kokatzen dira (memoria, adibidez) eta bestelako nahasmenduen eraginaren ikerketan, hala nola emozio- eta ikasketa mailakoak. Androzentrismoaren eragina ikertzen du hizkuntza nahasmendudun neskatilen ebaluaketan eta eskuhartzean.



Llorenç Andreu Andreu Barrachina

Llorenç Andreu irakasle katedraduna da, ikertzailea eta Universitat Oberta de Catalunya (UOC)-ko eHealth Center-eko Ikertzaile Nagusia. Gainera, Grupo de Investigación en Cognición y Lenguaje (GRECIL) ikertaldeko ko-zuzendaria da. Lehen Hezkuntzako diplomaduna eta Psikopedagogiako lizentziaduna da Universitat Jaume I-en (UJI) eta doktore, Zientzia Kognitibo eta Hizkuntzan, Universitat de Barcelonan. Irakasle lanetan ere aritua da (U. Jaume I, 2006-2007, U. Barcelonan 2007-2012) lehenago eta orain UOC-en dihardu, 2009z geroztik. Dekanorde aritu zen UOC-en Psikologia eta Hezkuntza Zientzietako Ikasketetan (2017-2020) eta zuzendari, Máster Universitario en Dificultades del Aprendizaje y Trastornos del Lenguaje-masterrean (2012-2021). Ikertzaile bisitari egonaldian egin da Universidad de Pensilvanian (UPenn), Universidad de Puerto Rico-n (UPR) eta Dallaseko U. Texasen (UTD). Hizkuntza garapeneko nahasmenduaren inguruan kokatzen da bere ikerketa, nagusiki.



Ainara Lakuntza Mazkieran

Logopedia Graduduna Salamancako Universidad Pontifician. Master profesional bat du egin a Arreta goiztiarra eta Hezkuntza berezian (Albor-Cosh, Bilbo) eta beste bat Ikasteko Zailtasunak eta Portaera Arazoei buruzkoa (Albor-Cosh, Bilbo). Unibertsitateko aditu titulua Psikomotrizitatea eta neuromotrizitatean. Logopeda aritua da Iñigo Aritza ikastolan (ikasturte bat) eta egun Altsasuko Ubide gabinetetik psikopedagogikoan dihardu, 2013z geroztik.



Ainhoa Leyaristi Oñederra

Ingeles Ikasketetako Graduduna (UPV/EHU, 2022). Egund Hizkuntzalaritza Teoriko eta Esperimentaleko Masterra egiten ari da.



Iñaki Martinez Urmeneta

CREENA

Nafar Gobernuako hezkuntza orientatzaile 1993 geroztik. CREENAKo aholkularia 2000-2009 bitartean. Nafar Gobernuako Ikerketa Linguistikoaren beka duna honako lanarekin: "Hizkuntza murgiltze prozesuan dauden HPBko ikasleen jarraipena" 2006. NAUPeko Magisteritza eskolako irakaslea 2010-2014. Bizikidetza aholkularia 2017-2019. CREENAKo zuzendaria 2019ko iraila ezkerotik.



Filosofía eta Hezkuntza Zientzietan lizentziaduna, Pedagogia atalean eta hezkuntza orientazioa sekzioan. Ikerketarako Gaitasuna lortu zuen NUPeko Psikologia eta Pedagogia saileko Doktorego programan. Másterduna Neuropsicología Klinikoko nazioarteko masterrean (U. europea Miguel de Cervantes). Logopedian luzaroan aritua da Altsasuko Ubide gabinete psikopedagogikoan, 1990z geroztiz, eta ANFASen, besteak beste. Orientazio lanetan aritu da Iñigo Aritza Ikastolan.



Patricia Piqueras Gonzalez

Logopedia Diplomaduna, Salamancako Universidad Pontifician. Magisteritza Diplomaduna Haur hezkuntzan, Nafarroako Unibertsitate Publikoan. Logopeda dihardu Nafarroako Arreta Goiztiarrean 2007z geroztik.



Sara Ramos Cabo

UPV-EHU

Sara Juan de la Cierva Postdoc ikertzailea da UPV/EHUn. Masterra BCBLen eta Doktorego ikasketak Norwegian University of Science and Technologyan (NTNU) egin zituen Marie Sklodowska-Curie beka batekin. Doktoregoa amaitu ondoren, Autism Center of Excellence, University of California San Diego (UCSD)n aritu zen ikertzaile. Autismoaren fenotipo klinikoan espezialitatu da eta gaitasun kognitiboak, hizketa bidezko eta hizketaz kanpoko komunikazioan lan egin du. Profil kliniko eta ikertzailea bateratuz, Sararen interes nagusienetarikoak ikerketa translazionala eta neuroaniztasuna duten pertsonen bizikaltatea hobetzea dira.



Ekaine Rodriguez Armendariz

EHU HiTT

Ekaine lanbidez Lan Terapeuta da eta Neurozientzietan Doktoretza du. Biztanleria pediatrikoarekin jorratzen du bere lan klinikoa eta garapen zailtasunekin lotutako ikerketa proiektu desberdinetan parte hartu du.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2023-05-31 ARTE	2023-09-14 ARTE	2023-09-15 ARTE
Gazte tarifa	25,00 EUR	-	59,00 EUR
OSAKIDETZAKO GONBIDATUAK	-	0 EUR	-
Orokorra	-	-	84,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	-	71,00 EUR
Matrikula exentzioa	-	-	59,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatutako kide	-	-	71,00 EUR
Elkar	-	-	71,00 EUR
Irakasteko ikasten - Eusko Jaurlaritza	-	-	71,00 EUR
Irakasteko ikasten - Nafarroako Gobernua	-	-	71,00 EUR
Osasuna, pertsonetikiko konpromisoa	-	-	21,00 EUR

ONLINE ZUZENEAN	2023-05-31 ARTE	2023-09-14 ARTE	2023-09-15 ARTE
Gazte tarifa	25,00 EUR	-	59,00 EUR
Orokorra	-	-	84,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	-	-	71,00 EUR
Matrikula exentzioa	-	-	59,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatutako kide	-	-	71,00 EUR
Elkar	-	-	71,00 EUR
Irakasteko ikasten - Eusko Jaurlaritza	-	-	71,00 EUR
Irakasteko ikasten - Nafarroako Gobernua	-	-	71,00 EUR
Osasuna, pertsonetikiko konpromisoa	-	-	21,00 EUR
OSAKIDETZAKO GONBIDATUAK	-	-	0 EUR

Kokalekua

Lesakako Harriondoa Kultur Etxea

Komentu Kalea 1. Lesaka

Nafarroa